AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

4276

1722/2015 EBAZPENA, urriaren 5ekoa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, hautatze-probetarako epaimahaia izendatzeko, destinoa Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan duen Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide taldeko Medikuen kategorian (Familiako Medikuntzako lanpostu funtzionala) pertsonal estatutarioaren egoerara heltzeko.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendari Nagusiaren maiatzaren 28ko 1135/2015 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautaketa-probak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartu ziren.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendari Nagusiaren maiatzaren 28ko 1139/2015 Ebazpenaren bidez, destinoa Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan duen Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide taldeko Medikuen kategorian (Familiako Medikuntzako lanpostu funtzionala) oinarri espezifikoak onartu dira.

Oinarri orokorrak onartu zituen Ebazpenaren 18. oinarrian zehaztutakoaren arabera, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendari Nagusiak hautaketa-probak kalifikatuko dituen epaimahaia izendatu behar du.

Adierazitakoagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliatuz, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Lehenago aipatutako kategoriaren prozesuari dagokion Kalifikazio Epaimahaia izendatzea. Epaimahaikideak ebazpen honen I. Eranskinean zerrendatzen dira.

Bigarrena.- Ebazpen honek eman den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarren.- Ebazpen hau EHAAn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.- Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartu zituen Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko maiatzaren 28ko 1135/2015 Ebazpenaren 21. oinarrian ezarritakoaren arabera, Ebazpen honen aurka gora jotzeko helegitea jarri ahalko zaio Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko urriaren 5a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.

I. ERANSKINA

Epaimahaiburua

- Titularra: María Iciar Pérez Irazusta.

- Ordezkoa: María Amaya Echevarría Altuna.

Lehen epaimahaikidea

- Titularra: Alfonso Carlos Casi Casanellas.

- Ordezkoa: José Ignacio Fraile Esteban.

Bigarren epaimahaikidea

- Titularra: Manuela Pérez Rizo.

- Ordezkoa: José Manuel Maiz Urretagoyena.

Hirugarren epaimahaikidea

- Titularra: María Elena Iciar Aizpurua Aranguren.

- Ordezkoa: Maximiano Gutiérrez Jodrá.

Laugarren epaimahaikidea

- Titularra: Lourdes Marijuan Arcocha.

- Ordezkoa: María Jesús Salvatierra Martínez Eulate.

Bosgarren epaimahaikidea

- Titularra: Begoña Inmaculada Martínez Eguía.

- Ordezkoa: Mónica García Asensio.

Seigarren epaimahaikidea

- Titularra: Juan Carlos Blázquez Dávila.

- Ordezkoa: Mikel Herrero Amesti.

Idazkaria

- Titularra: Julio Sáenz Ruiz De Velasco.

- Ordezkoa: María Cristina Fuentes Azpiroz.